



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 2a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “Gizakia Helburu Fundazioaren obretarako transferentzia” kontusailarekin egin beharreko jarduketei buruzkoa. Maribel García malo andreak egin du (8. or.).

—Galdera, ZT-TRW multinazionalak bere plantilla murriztea justifikatzen saiatzeko darabiltzan aurkezpenmoldeen egokitasuna eta eduki tekniko, juridiko eta ekonomikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak eginitako balorazioari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, eskola-jazarpeneko kasuetan erabili beharreko protokoloari eta Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpenaren aurka lan egiteko aplikatuko dituen neurriei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (9. or.).

—Galdera, baliabide ekonomikorik gabeko pertsoneri laguntze aldera Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak sinatutako hitzarmenari eta Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (10. or.).

—Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa. Consuelo Satrústegui Marturet andreak egin du (10. or.).

—Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (11. or.).

—Galdera, Tracasa enpresa publikoari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (12. or.).

—Galdera, osasun-garraioak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).

—Galdera, itzarote-zerrendei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).

- Galdera, jakiteko ea zer aukera dagoen toki entitateei dagozkien zenbatekoak ordaintzen zaizkiela bermatzeko, 2715/2015 Ebazpeneko baldintzak beterik interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuentzako diru-laguntza eskatzen dutenean. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (14. or.).
- Galdera, osasun-garraioa kalitate-irizpideak betetz egin dadin hartu beharreko neurriei buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Espainiak Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Karta betetzeari buruz Europako Kontseiluak emandako laugarren txostena dela-eta. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasuna-ren zorraren berrikuspenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Estatuarekin 2016rako defizit eta zorpetze mugak sinatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako lurraldean sartzeko bideetako informazio-seinaleetan euskara ager dadin aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta txostenei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2016ko ekitaldirako (20. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2016ko ekitaldirako (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2016ko ekitaldirako (21. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2016ko ekitaldian jasoko dituzten ordainsariak (21. or.).
- Parlamentu-taldeek 2016ko ekitaldian jasoko dituzten diru-sariak (22. or.).
- 2015. urtean zehar foru parlamentariei emandako ordainsariak (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Gobernuak, 2016ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Par-lamentuari igorri dio Toki inbertsioetarako indarre-ko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110, 111 eta 127. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Presako prozedurari jarraikiz izapidetzea Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **zortzi egun baliouduneko epea hasiko da eta 2016ko o-tsailaren 15ean, eguerdiko hamabietan, bukatu-ko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. arti-kuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamenta-riek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluan aurreikusten denez, "Nafarroako Gobernuak, har-tarako gaitasuna ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko ditu, toki enti-tateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Foru Komunitateko lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea helburu". Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123.4 artikulua, berriz, honakoa xeda-tzen du: "Halaber, kapital transferentzietarako eza-rritako zenbatekoaren banaketa inbertsio planak sortzen dituzten foru legeetan paratuko den moduan egingen da".

Urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen bidez 2009-2012 eperako Toki Azpiegituren Plana ezarri zen. Ondoren, ekainaren 17ko 13/2010 Foru Legea onetsi zen, Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpo-ko Planari buruzkoa. Urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuaren bidez plan hori garatzeko arauak onetsi ziren.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legeak nabar-men aldatu zuen 16/2008 Foru Legea, eta aldi baterako luzatu zuen haren indarraldia, Toki Inber-tsioen Plan berri bat onetsi arte.

2. Nolanahi ere, Toki Inbertsioen Plana arautu-ko duen legeria berria behar den bezala egiteko, beharrezkoa da Toki Inbertsioen Plan indardunear sartutako espedienteak arindu eta bultzatzea. Horretarako, bi jarduketa mota behar dira.

Lehenengo eta behin, Toki Inbertsioen Plan berria egin eta tramitatzen den bitartean presa aitortuko prozeduraren bidez eskaera berriak pila-tzen jarraitzea saihestu beharra dago. Bestela, luzatu den eta neurri batean egungo beharrekin bat ez datorren araudi bati jarraikiz konpromisoak hartzen segitzeak atzerapenak eragin ditzake plan

berriaren aurreikuspenetan eta ezarpenean. Hala ere, bidezkoa da obra berriak larrialdiko prozedura erabiliz sartzeko bidea zabalik mantentzea. Obren hasierako baimena emateko prozedura ere bere horretan utziko da, hau da, ez du etorkizuneko planean sartzeko eskubiderik emanen.

Bigarrenik, neurri berariazkoak behar dira 2012az geroztik luzatuta dagoen Toki Inbertsioen Planaren babeseko espedienteak antolatu eta bultzatzeko. Gaur egun, plan horretan eragin zuzena dute hiru foru legek, 16/2008, 13/2010 eta 3/2012 foru legeek alegia, bai eta arestian aipatutako 5/2009 Foru Dekretuaren 56 artikuluek ere. Arau sorta konplexua da, erabiltzen zaila, eta interpretatzeko orduan arazo ugari sortzen dituena. Horri eransten badiogu, luzea izateaz gain, zehaztu gabe uzten dituela garrantzizko zenbait alderdi, tramitzeko baldintzei eta epeei dagozkienak, ez da harrizkoa inbertsio proiektu askoren abiadura motelarazi izana, are geldiarazi ere; horrek, zenbaitetan, proiektu horien jarraipena arriskuan jarri du, eta oztupo larriak ezarri ditu etorkizuneko Planerako erabiltzen ahalko den aurrekontuaz zentzuzko aurreikuspenak egiteko.

Kudeaketa arazo horiei gehitu behar zaizkie aurrekontuen arloko egonkortasunari buruzko legeria berriaren ondorioak, bereziki Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan jasotako xedapenek eta harekin lotutakoek eragindakoak.

Esandako guztiaren eraginez, urteak joan urteak etorri, xede honetarako kontu-sailen aurrekontu-gauzatzea ez da egokia izan. Eta horrek, azkenik, zerikusia izan du, ez nolana hikoia, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan duela zenbait urtetatik hona Toki Inbertsioen Planean erabili beharreko diru kopuruetan gertatu diren murrizketa zorrotzekin.

3. Lehenbailehen definitu, zehaztu edo argitu beharreko gai nagusiak, foru lege honetan mintzagai direnak, ondotik aipatzen dira.

Besteak beste, luzatutako egungo arauetan definitu gabe dauden edo irekiegiak diren zenbait epe zehazten dira.

Exekuzio proiektuetan eta/edo bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren egiaztapenetan akatsak zuzentzeko tramite eta epe batzuk ezarritzen dira.

Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketak hasiera batean emaitza negatiboa izaten duen kasurako alternatiba batzuk planteatzen dira.

Obrak hasteko zentzuzko epeak aurreikusten dira, bai eta balizko salbuespenak ere, behar bezala frogatutako interes publikoko arrazoiak tartean direnean. Horiek zehaztean, kontuan hartu da Toki Inbertsioen egungo Planaren luzapenean presa aitortuko prozeduraren bidez sartutako inbertsioei lehentasuna eman zitzaiela hain larritzat jo ez ziren beste behar batzuen gainetik, alde zuzenetik definitutako irizpide tekniko batzuekin osatutako protokolo bati jarraikiz.

Obrak hasi eta amaitzeagatik ordainketak jasotzeko eskaerak aurkezteko epeei eta betebeharrak dagoenez, aski izanen da obra aurreikusitako erabilera publikorako entregatu daitekeela ziurtatzen duen harrera-akta aurkeztea, enpresa kontratistaren adostasunik egon gabe ere.

Azkenik, akatsak zuzentzeko errekerimenduei osotara erantzuten ez zaienean, egindako obra edo obra zatiaren ikuskapena egiten dela aurreikusten da, aurreikusitako erabilera publikorako erabil ote daitekeen erabakitzeko. Baiezkoan, bidezkoa izanen da obraren jabeak eta zuzendaritzak (gutxienez) izenpetutako obra ziurtapenen bidez, bai eta fakturak edo kasuko kopuruak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz ere, frogatutako kostuaren zatiari dagokion ekarpen ekonomikoa ordaintzea.

Aipatutako azken bi neurriekin arrisku zehatz bati aurrea hartzen zaio, hain zuzen ere, obra egin duen enpresak, ados ez baldin badago harrerarako baldintzekin eta toki entitatearekin izenpetutako kontratuaren harrera eta likidazioarekin, agiri horietan bere adostasuna adierazteari uko egiteko tentazioa izan dezake, presio neurri gisa, desadostasunak konpontzeko lege ezarritako bideetara jo beharrean.

4. Gainera, arlo honi buruzko erregulazioa argitu eta erraztu beharra dago, halako moduan non ez baita nahitaezkoa izanen lege eta erregelamendu mailako zenbait testu desberdinaldi berean erabili eta interpretatzea. Foru lege honen bidez, ukitutako toki entitate bakoitzak jakin dezake berehala zein den funtsean bere inbertsioaren egoera administratiboa.

Foru lege honen helburua da erantzun egokia ematea aipatutako gai guztiei.

1. artikulua. Foru legearen xedea.

Foru lege honen helburua da Toki Inbertsioen Planean sartuta dauden inbertsioak antolatu eta bultzatzea.

2. artikulua. Eskaera berriak onartzea.

1. Foru lege honek indarra hartu ondoren, ez da onartuko toki inbertsioen planean sartzeko eskaera berririk urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 9.2 artikuluan eta harekin lotutako xedapenetan jasotzen den presa aitortuko prozeduraz.

2. Foru lege honek indarra hartu ondoren, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera larrialdiko obratzat kalifikatutakoaren gaineko eskaerak onartuko dira.

3. Era berean, toki entitateek jarrai dezakete Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusian obrak hasteko baimenak eskatzen, toki inbertsioen etorkizuneko planetan noizbait ere sartu ahal izateko, urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuaren 49. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. artikulua. Espedienteen tramitazioa.

1. Toki Inbertsioen Planean sartutako inbertsioei buruzko espedienteak foru lege honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira, eta berriaz aurreikusirik ez dagoen kasuan, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen eta hura garatzeko erregelamendua onetsi zuen urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretuan aurreikusitakoarekin bat.

2. Inbertsioa presa aitortukoa dela deklaratu duen ebazpena foru lege honek indarra hartu aurretik jakinarazi baldin bada, gehieneko diru ekarpena ezartzeko eskatzen den dokumentazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

Inbertsioa presa aitortukoa dela deklaratu duen ebazpena foru lege honek indarra hartu ondoren jakinarazi baldin bada, gehieneko diru ekarpena ezartzeko eskatzen den dokumentazioa bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita.

3. Ez da inolako espedienterik tramitatuko toki entitateak uko egin badio eskatutako inbertsioari.

16/2008 Foru Legearen 17.1 artikuluko f) letran aipatzen den ukoa baliozkoa izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu.

4. artikulua. Zuzenketa.

1. Azken epe bat emanen da, hilabetekoa, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, 16/2008 Foru Legearen 16. artikuluan aurreikusitako exekuzio proiektuetan dauden akatsak zuzentzeko, kasuko obraren xedea betetzeko eska dai-

tezkeen baldintza teknikoak biltzeko eragozpena direnean.

2. Era berean, hilabeteko azken epea ematen da, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita, 16/2008 Foru Legearen 16. artikuluan aurreikusitako plan ekonomiko-finantzarioak zuzendu edo eguneratzeko, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzaren Ekonomikorako Zerbitzuak eguneratu gabe daudela edo akats teknikoak dituztela erabaki baldin badu toki entitateari jakinarazitako ekintza administratibo bidez, bai eta korporazioaren erabakiak zuzendu ere, foru lege horren 7. artikuluan jasotako finantzaketa konpromisoa barne.

Aurrekontu eta kontuei buruzko kontabilitateko espedienteak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202.5 eta 242.5 artikuluek eta aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan foru lege hori garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 84. artikuluek aginduta bidali beharrekoak, aurkeztu ez dituzten toki entitate eskatzaileek aurkezteko azken epe bat izanen dute, hilabetekoa, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa aplikatu da zuzentzeko errekerimenduak, eperik gabekoak, biltzen dituzten egintza administratiboak hartu dituzten toki entitateetan.

4. Aurreko idatz-zatietan aurreikusitakoa ez da aplikatu zuzentzeko epe berriazkoak edo horien luzapenak jakinarazi direnean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

5. Akatsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezalako erantzuna eman ezean, bidezkoa izanen da Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedienteak tramitatzea, 16/2008 Foru Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat.

5. artikulua. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa.

1. Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzaren Ekonomikorako Zerbitzuak ebaluatuko du inbertsioen bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa.

Inbertsioaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioak ebaluazio negatiboa jasotzen badu, toki entitateak hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erabaki hauetako bat hartu eta Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiarik jakinarazteko:

a) Inbertsioa bere finantza ahalmenera egokitzekoa.

b) Finantzaketarako formula alternatibo bat proposatzekoa.

c) 16/2008 Foru Legearen 9.2, 12.3, 14, 16.3 eta 17.1 artikuluetan aipatzen den salbuespeneko araubidean sartzeko eskatzea.

2. Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketa eta Lankidetzako Ekonomikoko Zerbitzuaren iritziz toki entitateak proposatutako konponbide alternatiboak zuzentzeko moduko akatsak baditu, hilabeteko azken epe bat emanen du zuzenketa egiteko.

3. Toki entitateak artikuluko honen 1. idatz-zatian aipatzen diren erabakietako bat jakinarazten ez badu, edo akatsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezalako erantzuna eman ezean, bidezkoa izanen da Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedientea tramitatzea, 16/2008 Foru Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat.

6. artikulua. Libreki zehaztu beharreko inbertsioei dagokien muga epea.

1. 16/2008 Foru Legearen 5. artikuluko araberako libreki zehaztu beharreko inbertsioei dagokien ekarpenak ordaintzeko eskatzeko azken eguna 2016ko abenduaren 1a izanen da.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako epean ordaintzeko eskatzen ez diren diru kopuruak diruzaintzako gerakinean sartuko dira.

7. artikulua. Obra jakin batzuen hasiera.

1. 16/2008 Foru legearen 2. eta 3. artikuluetan aipatzen diren obrak, hasi gabe daudenak, foru lege honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean hasi beharko dira, baldin eta horien gehieneko ekarpen ekonomikoa foru lege honek indarra hartzen duenean zehazturik badago.

16/2008 Foru Legearen 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren gainerako obrak lau hilabeteko epean hasi beharko dira, ekarpena ezartzen duen ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita kontatuta.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa ez da aplikatuko plan zuzentzaileetako obretan, partikularren gaineko ukipenak daudenean; obra horiek foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean hasi beharko dira.

3. Obrak aurreko idatz-zatietan ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, Toki Inbertsioen Planetik kanpo uzteko espedientea tramitatuko da, 16/2008 Foru legearen 17.4 artikuluan xedatutako ari jarraikiz, salbu eta salbuespeneko kasu batean,

alegia, baimen berezia ematen bazaie, interes publikoaren onerako obrak atzeratzeko arrazoiak daudelako –toki entitateak frogatutakoak–, edo partikularren gaineko ukipenak ekartzen dituztelako, baina betiere inbertsioaren erabilera eta xedea babestuz.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, obren hasierako eguna zuinketaren aktan jasotakoa izanen da.

8. artikulua. Ordainketarako eskaerak, obra hasiera eta amaiera dela eta.

1. Obra hasierako ordainketarako eskaera, 5/2009 Foru Dekretuaren 48.1 artikuluko dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, kontratua formalizatu eta biharamunetik kontatzen hasita.

2. Obra amaierako ordainketarako eskaera, 5/2009 Foru Dekretuaren 48.3 artikuluko dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera akta egin eta biharamunetik kontatzen hasita, enpresa kontratistaren adostasunik ez badago ere.

3. Obra hasiera edo amaierako ordainketa egiteko eskaerak aurkezteko hilabeteko epea foru lege honek indarra hartzen duen egunetik hasita kontatuko da, kontratuaren egunaren edo obraren harrera aktaren egunaren ondotik bada.

4. Aurreko toki inbertsioen planetan sartutako obren amaierako dokumentazioa osatu eta, kasua bada, zuzendu beharko da hilabeteko epean, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

5. Ordainketarako eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, edo artikuluko honetan aipatzen diren dokumentazio guztia atxikirik ez badu, toki entitateari eskatu egiten zaio hamar egun baldinuzko epean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak eransteko.

6. Zuzentzeko errekerimenduari behar den moduan erantzuten ez bazaio, Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuak egindako obra edo obra zatia ikuskatuko du, aurreikusitako erabilera publikorako erabil daitekeen edo ez zehazteko. Baiezkoan, obraren jabeak eta zuzendaritzak (gutxienez) izenpetutako obra ziurtapenen bidez, bai eta fakturak edo kasuko kopuruak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztuz ere, Zerbitzuaren iritziz frogatuta dagoen kostua-

ren zatiari dagokion zenbatekoa ordaintzea bidezkoa izanen da.

9. artikulua. Gastu konpromisoak.

Proiektuak toki inbertsioen planetik kanpo gelditzen badira, dagozkien gastu konpromisoak ere indarrrik gabe geldituko dira.

Xedapen gehigarria. Diruzaintzako gerakinarren xedea.

1. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten baliabide ekonomiko guztiak, kapital transferentzien arloan, aurrekontuetan erabili gabe badaude, edo jatorria ekitaldi itxietako ekonomian badute, diruzaintzako gerakin atxikitat hartuko dira.

2. Gerakin hori, lehenengo eta behin, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuta sortzen diren gastu konpromisoak finantzatzeko erabiliko da.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutakoari aplikatu ondoren gerakin horretan gelditzen diren baliabide ekonomikoak etorkizunean toki inbertsioetarako onesten den planaren zuzkidura handitzeko erabiliko dira.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzen diren arauak.

Indarrrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Gizakia Helburu Fundazioaren obretarako transferentzia” kontusailarekin egin beharreko jarduketei buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García malo andreak aurkeztutako galdera, “Gizakia Helburu Fundazioaren obretarako transferentzia” kontusailarekin egin beharreko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak ahoz erantzun diezaion:

2016rako aurrekontuetan “Gizakia Helburu Fundazioaren obretarako transferentzia” izeneko kontusail bat jaso da, 50.000 eurokoa.

Eskubide Sozialetako Departamentuak zer jarduketa zehatz aurreikusi du egitea kontusail horrekin?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ZT-TRW multinazionalak bere plantilla murriztea justifikatzen saiatzeko darabiltzan aurkezpen-moldeen egokitasuna eta eduki tekniko, juridiko eta ekonomikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak eginko balorazioari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ZT-TRW multinazionalak bere plantilla murriztea justifikatzen saiatzeko darabiltzan aurkezpen-moldeen egokitasuna eta eduki tekniko,

juridiko eta ekonomikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak eginko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Parlamentuak iragan urtarrilaren 21ean, ostegunez, egindako Osoko Bilkuran, Landabengo industrialdean dagoen ZF-TRW enpresan bizi duten lan-gatazka dela-eta parlamentu-taldeek egindako galderari erantzunez, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Ayerdi jaunak adierazi zuen enpresa horren zuzendaritzak aur-

keztutako enplegu-erregulazioko espedienteari buruzko dokumentazioa jaso duela, eta departamentuak zehatz eta mehatz eta zorrotz aztertuko duela dokumentazio hori, balorazio bat egiteko.

Aurkeztu duen enplegu-erregulazioko espedientea dela-eta enpresaren zuzendaritzak helarazi duen dokumentazioa aztertu ondoren, zure departamentuak zer balorazio egin du ZF-TRW multinazionalak bere plantilla murriztea justifikatzen saiatze aldera egindako aurkezpen-moldeari eta eduki tekniko, juridiko eta ekonomikoari buruz?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, eskola-jazarpeneko kasuetan erabili beharreko protokoloari eta Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpenaren aurka lan egiteko aplikatuko dituen neurriei buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, eskola-jazarpeneko kasuetan erabili beharreko protokoloari eta Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpenaren aurka lan egiteko aplikatuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Solana Aranak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Iragan astean estatuko hedabideen bidez jakin genuen adingabe batek bere buruaz beste egin zuela, bulliyng edo eskola-jazarpeneko kasu baten ondorioz. Gizartea sakon hunkitzen duen gai bat da inondik ere, prebentzioa, ikastetxeetan lan egitea, pedagogia eta, noski, gobernuen inplikazioa eskatzen dituen gai bat da. Nafarroan badugu protokolo-eredu bat, 2014an aldatu zen 2010eko foru agindu batek arautua.

Horregatik guztiagatik,

Gobernu honek aldaketarik egingen al du eskola-jazarpeneko kasuetarako 2010etik dagoen protokoloan? Departamentuak zer neurri aplikatuko ditu eskola-jazarpenaren aurka lan egiteko?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: María Solana Arana

Galdera, baliabide ekonomikorik gabeko pertsoneri laguntze aldera Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak sinatutako hitzarmenari eta Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, baliabide ekonomikorik gabeko pertsoneri laguntze aldera Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak sinatutako hitzarmenari eta Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Isabel Aramburu andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute, baliabide ekonomikorik gabeko pertsoneri argindar eta gas hornidura bermatze aldera, kasuko fakturak ordaindu ahal izan ditzaten.

Gauzak horrela:

– Zertan gauzatzen da Nafarroako Gobernuak eta Iberdrolak baliabiderik gabeko pertsoneri laguntze aldera sinatutako hitzarmena?

– Gobernuak zer jarduketa aurreikusten du pobrezia energetikoaren arazoa dela-eta?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa.

CONSUELO SATRÚSTEGUI MARTURET ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Consuelo Satrústegui Marturet andreak aurkeztutako galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpre-

sa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Consuelo Satrustegui Marturet andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 3,9 milioi euroko erreklamazio bat jaso du, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazio bat dela-

eta. Erreklamazio hori ebazteke dauden beste biri –milioi bat euroko balioa dute– gehitu behar zaie. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Departamentuak zer konponbide ditu gogoan egoera honi aurre egiteko? Honek guztiak zer eragin izanen du Kultura Departamentuan eta, heda-duraz, Nafarroako Gobernuan?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Consuelo Satrustegui Marturet

Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuari aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioa dela-eta: Gobernuak zer neurri hartuko ditu erreklamazio horri dagokionez? Erreklamazio horrek eta lehenago aurkeztutakoek zer eragin izan dezakete 2016ko aurrekontuaren betetzean?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Tracasa enpresa publikoari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, Tracasa enpresa publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Tracasa enpresa publikoaren zuzendaritzak azken asteetan langileei jakinarazi dizkien informazioen arabera, badirudi zuzendaritza horrek, Nafarroako Gobernuaren ikus-onespenarekin, erabaki duela enpresa banatzea egiten dituen jardueren arabera. Horretarako beste enpresa publiko bat sortuko litzateke, oraingo Tracas bi enpresa publiko bihurtuz, bat Nafarroako Gobernuak bideratzen dizkion eskaerak betetzeko, eta beste bat Nafarroako Gobernuaz kanpoko entitate eta enpresekin kontratatuta dituen lanak egiteko.

Zein dira arrazioiak, eta zein txosten, azterlan edo azterketetan oinarritu da Tracasaren zuzendaritza, Nafarroako Gobernuarekin batera, eragiketa hori aurrera eramateko? Balorazioen bat egin al da eragiketa horrek etorkizunean, ekonomiaren zein gizartearen aldetik, izan ditzakeen ondorioei buruz, hala CPENrentzat nola Tracasaren plantilla osoarentzat?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, osasun-garraioak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, osasun-garraioak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-tekto foru parlamentari Marisa de Simón Caballero honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako-

ak Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun-garraioak Nafarroan dituen antolaketa eta baldintzak direla eta, salaketak, proposamenak eta eztabaidak izan dira Legebiltzarrean aurreko bi legegintzaldietan, eta gauza bera gertatzen ari da oraingoan.

Aurreko legegintzaldian Nafarroako Gobernuak ez zuen aplikatu edo garatu, ez aski ez eta araudiari jarraikiz ere, osasun-garraioa ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura ezartzen dituen 836/2012 Errege Dekretuan aginduzko izaerarekin ezarritakoa.

Nafarroako Parlamentuak gai horri buruzko mozio batzuk onetsi ditu, azkena 2015eko urriaren 2an.

Beste alde batetik, kezkatzekoa da anbulantziatako langileen titulazio-baldintzak ez aplikatzeko balizko aukera.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du osasun-garraioak Nafarroan bizi duen egoerari buruz? Nolako ekintzak abiatu ditu edo garatu

gogo ditu Parlamentuak gaiari dagokionez onetsitakoa betetzeko? Osasun-garraioan zer nolako eredu bultzatu nahi du? Zer neurri aurreikusi ditu enpresa pribatuek bete ditzaten 836/2012 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, itzarote-zerrendei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, itzarote-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduak diosenari jarraiki, honako ahozko galdera egin nahi dio Nafar Gobernuari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Itzarote-zerrenden afera aspaldiko kezka da, eta beraiek laburtzea da osasungintza arloan akordio programatikoak berak jasotzen duen helburu garrantzitsuenetako bat. Argi dago egiturazko neurriak hartu behar direla, eta akordioak berak horretarako bide bat planteatzen du; baliabide publikoak optimizatzeko eta haiek errentagarri

bihurtzeko neurriak hartzea, alegia. Esaterako, diagnostiko-probak eta ebakuntzak egitea, lanaldi arruntaren barruan azpiegiturak, ebakuntza-gelak eta osasun-tresnak erabiltzea, ordutegiaren luza-pena eta txandakatzea.

Urteotan erabili diren "peonadak" berriro abian jarriko ote diren iradokitzen ari dira sektore batzuk. Kontuan hartu behar da neurri honen harira Comptos Ganberak berak esandakoa, eta bere eraginkortasunik eza. Hortaz, bide hau erabiltzea ez da komeni, gure ustez.

Bestalde, berriki onartutako aurrekontuetan bi partida ageri dira espresuki itzarote-zerrendei erreferentzia egiten dietenak: bata, zentro pribatuetara deribazioak egiteko akordio markoa, eta bestea, baliabide propioak erabiliz egin beharrekoa.

Hau guztia dela eta, honako galdera egin nahi diogu Nafar Gobernuari:

Nola egingo zaie aurre itzarote-zerrendei, zehazki? Zer-nolako plangintza egiten ari da Departamentua? Zer neurri jarriko dira abian Osasunbidean zehazki, eta nola gauzatuko dira, zein epetan, etab?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko ea zer aukera dagoen toki entitateei dagozkien zenbatekoak ordaintzen zaizkiela bermatzeko, 2715/2015 Ebazpeneko baldintzak beterik interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuentzako diru-laguntza eskatzen dutenean.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea zer aukera dagoen toki entitateei dagozkien zenbatekoak ordaintzen zaizkiela bermatzeko, 2715/2015 Ebazpeneko baldintzak beterik interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuentzako diru-laguntza eskatzen dutenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion: ·

2016ko urtarrilaren 18an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2715/2015 Ebazpena,

abenduaren 22koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen duena langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko.

Deialdi honen xedea da Nafarroako toki entitatei langabeak kontratatzeke emanen zaizkien diru-laguntzen baldintzak eta betebeharrak arautzea. Helburua da langabe horien enplegarritasuna hobetzea, lan merkatuan sartzea erraztuko dieten lanbide-gaitasunak eskuratuta. Hori helburu, ebazpenaren arabera, pertsona langabetuekin egindako kontratuak diruz lagunduko dira, betiere kontratu horiek hiru eta sei hilabete arteko iraupena badute eta lanaldia, gutxienez, kasuan kasuko araudiak finkatzen duen lanaldi osoaren %50 adinakoa baldin bada.

Nafarroako Gobernuak modurik al dauka toki entitateei dagozkien zenbatekoak ordaintzen zaizkiela bermatzeko, 2715/2015 Ebazpeneko baldintzak beterik interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuentzako diru-laguntza eskatzen dutenean?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, osasun-garraioa kalitate-irizpideak betez egin dadin hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, osasun-garraioa kalitate-irizpideak betez egin dadin hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, heldu den otsailaren 4ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Parlamentu honetan behin eta berriz eztabaidatu den gaia da osasun-garraioarena eta osasun-laguntza hori emateko arazoak.

Zein neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak osasun prestazio hori kalitate-irizpideak betez eman dadin?

Iruñean 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Espainiak Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Karta betetzeari buruz Europako Kontseiluak emandako laugarren txostena dela-eta.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Espainiak Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Karta betetzeari buruz Europako Kontseiluak emandako laugarren txostena dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Europako Kontseiluak "Espainiak Erregio edo gutxiengoen hizkuntzen Europako Karta betetzeari buruzko laugarren txostena"ren emaitzak argitaratu ditu. Txostenean, luze eta zabal hitz egiten da Nafarroari buruz. Txostenean politika publikoei buruzko ohar eta gomendio ugari egiten direnez, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du txosten horri buruz?

Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen ditu txosten horren edukiak betetzeko?

Iruña, 2016ko urtarrilaren 29a

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren zorraren berrikuspenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasuna-ren zorraren berrikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren zorraren berrikuspenari buruzkoa

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko otsailaren 4an egin beharreko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Aurtengo urtarrilaren 28an, Club Atlético Osasuna-ren prozedura adostuei buruzko txostena, 2004/2005 denboralditik 2013/2014 denboraldira hartzen duena, jaso da Parlamentuko erregistroan. Txostena auditore Ignacio Larrañeta Iturria jaunak egin du, eta 2016ko urtarrilaren 15eko data dauka. Txostena Parlamentu honi igorri zaio aipatutako klubaren zorra berregituratzea onesten duen abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legeko xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoa betetzeko.

Txosten horretan, besteak beste, azterketa bat egiten da 2004tik 2014ra bitarteko urteetako zerga-betebeharren betetzeari buruz.

Klubean dagoen dokumentazioa aztertuta, auditoreak honako ondorio hauek ateratzen ditu aipatutako urteak direla eta:

– balio erantsiaren gaineko zergari (BEZa) dagokionez, ez ziren aitortu diru-sarreraren kontzeptuko 64.904.963 euro (txarteldegietakoak zein abonamendu-salmentakoak), zeinek –auditorearen zenbatespenaren arabera– guztira 10.788.837 euro egiten duten Nafarroako Ogasunari ordaindu gabeko kuotetan.

– pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZa) dagokionez, guztira 31.310.641 euro leudeke, ordainsari gisa jasotako kopuruak (kontratu pribatuak, irudi-eskubideak, eskubide ekonomikoak, kalte-ordainak, bestelako ordainsariak, “Promesas” taldeko jokalarientzako ordainketak, beste langile batzuentzako osagarriak), zeinei ez baitzaie atxikipenik egin. Horiek guztiek 11.612.142 euro egiten dute –auditorearen zenbatespenaren arabera–, aitortu gabeko kuotengatik; horiei kendu beharko litzaieke 2013an egindako ikuskapen-aktaren zenbatekoa –2.411.418 euro–. Horrenbestez, zerga honetan likidatu gabeko kuoten zenbateko garbia 9.200.724 eurokoa izanen litzateke.

– zerga horiei zegozkien kuota likidatugabeen guztizko kopuru horiek direla eta (10.788.837 € + 9.200.724 €), auditoreak ondorioztatzen du ezen, horietako bat edo beste preskribatuta egon daitekeela kontuan hartuta, zenbatetsitako aitortu eta preskribatu gabeko BEZaren eta PFEZaren kuotek 3.454.883 € egingen luketela (2.894.996 + 559.88).

Aurreko guztia eta txostenean aipatutakoa ikusirik, parlamentari honek honakoa galdetzen dio Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariari:

– Departamentuak berrikusiko al du auditoreak aipatutako kopuruaren agerpenak zenbateko zorra ekarriko lukeen, BEZari eta PFEZari dagokienez?

– Berrikuspen horretatik eratorriko al da Osasunari abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legean aitortutako zor errealaren aldaketa bat, hura, kontzeptu guztiak hartuta, 53.025.992,48 eurokoa baitzen?

– Ez al du uste Departamentuak, iruzur egin-dako kopuruaren zenbatekoa ikusita, delitu fiskala egon litekeela eta txostena eta Zerga Ogasunean dauden datuak zigor arloko jurisdikziora bidali beharko lirakeela, haiek iker daitezen?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Gobernuak parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Club Atlético Osasuna-ren eta bere fundazioaren kontuei buruzko ikerketan izandako aurkikuntza berriak ikusita, honako galdera hau egiten dut:

Club Atlético Osasuna-ren 2004tik 2014ra bitarteko kontuen egoera berrikusiak zertan eta zer neurritan eragiten die hark Foru Ogasunarekin duen zorrari eta klubak Nafarroako Gobernuarekin daukan zorra berregituratzeko foru legearen garapenari?

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Estatuarekin 2016rako defizit eta zorpetze mugak sinatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotetasun handiko galdera, Estatuarekin 2016rako defizit eta zorpetze mugak sinatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotetasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

– Zer irizpide aintzat hartu dira Estatuarekin 2016rako defizit eta zorpetze mugak sinatzeko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako lurraldean sartzeko bideetako informazio-seinaleetan euskara ager dadin aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako lurraldean sartzeko bideetako informazio-seinaleetan euskara ager dadin aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du zein jarduketa aurreikusi dituen Nafarroako Gobernuak euskara ager dadin Nafarroako lurraldean sartzeko bideetako informazio-seinaleetan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta txostenei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Santos Cerdán León jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta

txostenei buruzkoa zen, eta 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2016ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariei buruz emandako txostena, 2016ko urtarrilaren 28koa, zeinak proposatzen baitu haren ordainsaria ehuneko 1 gehitzea, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Ezartzea, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria ehuneko 1 gehituko dela, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Lehendakariaren 2016. urteko ordainsari gordina 56.686,28 eurokoa izatea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien ordainsariak 2016ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak foru parlamentariak jasoko dituzten ordainsariei buruz emandako txostena, 2016ko urtarrilaren 28koa, eta foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, foru parlamentarien ordainsariak ehuneko 1 gehituko direla, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parla-

mentarien ordainsari gordina, 2016. urterako, 56.157,08 eurokoa izatea.

3. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2016. urterako, 49.916,30 eurokoa izatea.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien ordainsari gordina, 2016. urterako, 42.117,74 eurokoa izatea.

5. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2016. urterako, 37.437,12 eurokoa izatea.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2016ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz emandako txostena, 2016ko urtarrilaren 28koa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak ehuneko 1 gehituko direla, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2016. urterako:

– Lehendakariaren kabineteko burua: 51.139,62 euro.

– Lehendakariaren idazkaria: 34.685,84 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 27.892,34 euro.

– Parlamentu-taldeen laguntzaileak: 27.892,34 euro.

3. Parlamentu-taldeen laguntzaileei eta Mahai-kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu aitopenari buruz onetsitako irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2016ko ekitaldian jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2016ko urtarrilaren 28koa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, foru parlamentarietara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak ehuneko 1 gehituko direla, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta bidaiaria ofizialengatik eta lokomozio gastuengatik ordain zenbaterako ez dutela inolako igoserarik izanen.

2. Onestea foru parlamentarietara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 137,52 euroko dieta, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietara, deituak diren parlamentu-ekitaldietarako bertaratze bakoitzeko.

– 162,61 euroko dieta, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietara, deituak diren parlamentu-ekitaldietarako bertaratze bakoitzeko.

– Kilometro-ordaina: 0,31 euro kilometro bakoitzeko.

3. Bidaiaria ofizialengatik ordain zenbatekoa ezartzea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin: Nafarroatik kanpora eginiko bidaietan, eguneko 80,00 euro; eta atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 110,00 euro.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Parlamentu-taldeek 2016ko ekitaldian jasoko dituzten diru-sariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2016ko urtarrilaren 28koa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 35. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, parlamentu-taldeek jasoko dituzten diru-sariek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea parlamentu-taldeek jasoko dituzten ordainsariak, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2015. urtean zehar foru parlamentariei emandako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15.4 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak.

2015. urtean foru parlamentariei emandako ordainsari guztien zerrenda xehakaturik, ikusirik,

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egina, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadin agintzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruari eta Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2015eko urtean ordaindutako ordainsariak**Foru Parlamentariak**

Izen-abizenak	Ordainsari finkoa	Bertaratzearen truke		Bestelako ordainketak (*)	Guztira (eurotan)
		jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina		
ALEMAN ARRASTIO, VIRGINIA	26.633,02		570,40		27.203,42
ALTUNA OCHOTORENA, CRISTINA	19.974,75		521,42		20.496,17
AMEZKETA DIAZ, KOLDO	31.226,48				31.226,48
ANAUT PEÑA, DABID	24.711,05	161,00	893,73		25.765,78
ANDREO VÁZQUEZ, M ^a FÁTIMA	26.633,02				26.633,02
ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO	29.962,84		1.215,20		31.178,04
ARANBURU BERGUA, ISABEL	26.633,02				26.633,02
ARANOA ASTIGARRAGA, MIREN JULIA	49.813,42				49.813,42
ARIZCUREN POLA, OSCAR	27.800,57	136,16	213,59		28.150,32
AYERDI OLAIZOLA, MANUEL	28.367,78		182,28		28.550,06
AZNÁREZ IGARZA, AINHOA	30.692,27				30.692,27
BAREA Aiestaran, BIKENDI	27.756,24				27.756,24
BARKOS BERRUEZO, UXUE	5.405,67				5.405,67
BELTRAN VILLALBA, ANA	56.432,63		464,38		56.897,01
BUIL GARCÍA, MIKEL	26.633,02				26.633,02
CABALLERO MARTÍNEZ, JAVIER	17.091,66				17.091,66
CARO SÁDABA, SAMUEL	31.226,48		2.742,88	18.696,61	52.665,97
CASADO OLIVER, LUIS	26.633,02		1.748,40		28.381,42
CASADO OLIVER, RAMÓN	27.756,24		1.954,24	16.534,09	46.244,57
CASTIELLA IMAZ, JOKIN	19.974,75				19.974,75
CASTILLO FLORISTAN, M ^a VICTORIA	27.756,24		524,52	17.151,85	45.432,61
CATALÁN HIGUERAS, ALBERTO	67.939,70		3.072,41		71.012,11
CERDÁN LEÓN, SANTOS	51.962,37		2.756,52		54.718,89
CHIVITE NAVASCUÉS, MARÍA	29.962,84				29.962,84
COUSO CHAMARRO, CARLOS	26.633,02				26.633,02
CUEVA LÁZARO, PATRICIA	23.063,65				23.063,65
DE SIMÓN CABALLERO, MARISA	50.270,75				50.270,75
DOMENECH LINDE, MÓNICA	26.633,02				26.633,02
ESPARZA ABAURREA, JOSÉ JAVIER	23.098,28				23.098,28
ESPARZA IRIARTE, JESÚS	27.614,80				27.614,80
ESPORRÍN LAS HERAS, MAITE	31.226,48				31.226,48
FDEZ. DE GARAYALDE Y LAZCANO SALA, ASUN	50.270,75		1.984,00		52.254,75
FELONES MORRÁS, ROMÁN	848,65				848,65
FERRER CAJAL, M ^a DEL CARMEN	27.756,24		1.690,12	9.817,77	39.264,13
GAINZA AZNAREZ, CORO	27.756,24				27.756,24
GALILEA ARAZURI, GREGORIO	27.756,24		6.428,16		34.184,40
GANUZA BERNAOLA, BEGOÑA	26.633,02		970,92		27.603,94
GARBAYO BERDONCES, RAQUEL	27.756,24		1.343,54	8.231,88	37.331,66
GARCIA ADANERO, CARLOS	21.864,09	12.662,88			34.526,97
GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER	26.633,02		2.809,22		29.442,24
GARCÍA MALO, M ^a ISABEL	26.633,02				26.633,02
GARIJO PÉREZ, ESTEBAN	17.728,28		1.112,28		18.840,56
GARMENDIA PÉREZ, GUZMÁN MIGUEL	26.633,02				26.633,02
GIMENO GURPEGUI, CARLOS	26.633,02		1.806,68		28.439,70
GÓMEZ ORTIGOSA, JERÓNIMO	27.756,24		1.445,22		29.201,46
GONZÁLEZ GARCÍA, CARMEN M ^a	27.756,24		1.371,44	17.151,85	46.279,53
GORRI GIL, EVA MARÍA	26.907,59		652,86		27.560,45
HUALDE IGLESIAS, UNAI	29.962,84		1.984,00		31.946,84
IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI		6.127,20			6.127,20
IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU	17.984,15				17.984,15
JIMÉNEZ ALLI, ROBERTO	18.046,54				18.046,54
JIMÉNEZ HERVÁS, TXENTXO	31.226,48			17.624,56	48.851,04
JURÍO MACAYA, INMACULADA	26.633,02		217,00		26.850,02
KORRES BENGOTXEA, ESTHER	26.633,02				26.633,02
LASA GORRAIZ, FRANTZISKO XABIER	31.462,89				31.462,89
LETE MARTÍNEZ, M ^a DEL MAR	24.436,49				24.436,49
LEUZA GARCÍA, PATXI	50.270,75				50.270,75
LIZARBE BAZTÁN, JUAN JOSÉ	17.728,28				17.728,28
LONGÁS GARCÍA, JUAN CARLOS	17.322,68				17.322,68
LORENTE PÉREZ, FRANCISCO JAVIER		8.850,40			8.850,40
M ^a PILAR ZORZANO OYARBIDE	3.530,15				3.530,15
MARTÍN DE MARCOS, ENRIQUE	954,75				954,75
MARTINEZ URIONABARRENETXEA, KOLDO	29.612,12				29.612,12
MAULEON ECHEVERRIA, TXEMA	27.756,24				27.756,24
MEDINA SANTOS, NURIA	26.633,02				26.633,02
NUIN MORENO, MIGUEL	56.521,57				56.521,57
OCHOA CANELA, M ^a CARMEN	27.756,24			15.787,63	43.543,87
OTAMENDI CLARAMUNT, AMAYA		6.399,52	186,00		6.585,52
PEREZ IRAZABAL, NEKANE	27.756,24		1.825,59		29.581,83
PÉREZ PRADOS, ANTONIO		9.667,36			9.667,36
PÉREZ RUANO, LAURA LUCÍA	29.962,84				29.962,84
RAMÍREZ ERRO, MAIORGA	53.600,57		1.801,10		55.401,67
RAPÚN LEÓN, JOSÉ ANTONIO	27.756,24		2.876,80		30.633,04
RASCON MACIAS, PEDRO	27.756,24			17.014,57	44.770,81
RUBIO MARTÍNEZ, VICTOR	27.756,24				27.756,24
RUIZ JASO, BAKARTXO	53.226,07				53.226,07
SÁEZ BARRAO, M ^a TERESA	26.633,02				26.633,02
SAN MARTÍN ANIZ, ANA ISABEL	25.260,19				25.260,19
SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA, JUAN LUIS	21.553,52				21.553,52
SANTOS ITOIZ, EDUARDO	19.871,79				19.871,79
SANZBERRO ITURRIRIA, BEGOÑA	26.907,59		1.042,22	11.591,89	39.541,70
SATRÚSTEGUI MARTURET, CONSUELO	20.867,10				20.867,10
SAYAS LÓPEZ, SERGIO	50.270,75		624,96		50.895,71
SEGURA MORENO, M ^a CARMEN	26.633,02		1.926,96		28.559,98
SOLANA ARANA, M ^a RONCESVALLES	26.633,02				26.633,02
UNZU GÁRATE, AINHOA	26.633,02				26.633,02
VILLANUEVA CRUZ, ELOY	27.756,24			10.081,75	37.837,99
ZABALETA ZABALETA, PATXI	19.944,77				19.944,77
ZARRALUQUI ORTIGOSA, LUIS		8.850,40			8.850,40
ZARRANZ ERREA, AMAYA	27.756,24				27.756,24
BOZAL BOZAL, JOSEFINA				3.351,46	3.351,46
TOTALES	2.423.846,92	52.854,92	50.959,04	163.035,91	2.690.696,79

(*) Parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 5. eta 7. artikulua.

